Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

1313

EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 19koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko 2. zenbakiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak bideratu duen Administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (1026/09-B zenbakiko Prozedura Laburtukoa) interesa izan lezaketenak epatzen dituena.

Goian azaldutako Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (1026/09-B zenbakiko Prozedura Laburtukoa) aurkeztu da Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2009ko ekainaren 24ko Ebazpenaren kontra. Ebazpen horren bitartez, 08/02/08ko Ebazpenaz (martxoaren 5eko EHAA, 46 zk.) deitutako Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ikerketa Kriminaleko Ofizialondoko lanpostuen kopurua zabaltzen zen, eta Vitoria-Gasteizko 2. zenbakiko Administrazio Auzietako Epaitegiak jatorrizko espediente administratiboa bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoaren bat etorriz, ondorengo hau jakinarazten dut: aipatutako prozeduran interesatuta dauden guztiak euren interes legitimoen defentsan azal daitezela, egoki baderitzote, bederatzi eguneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Arkaute, 2010eko urtarrilaren 19a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
JUAN DE DIOS URIARTE ARCINIEGA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

1313

RESOLUCIÓN de 19 de enero de 2010, del Director de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se emplaza a los posibles interesados en el recurso contencioso-administrativo al procedimiento abreviado 1026/09-B, que se sigue en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz.

Habiéndose interpuesto el recurso contencioso-administrativo Procedimiento Abreviado 1026/09-B identificado en el encabezamiento, contra la resolución de 24 de junio de 2009, del Director de la Academia de Policía del País Vasco por la que se amplian las plazas de Suboficial de Investigación Criminal de la escala de Inspección de la Ertzaintza convocadas mediante Resolución de 08/02/08 (B.O.P.V. nº 46, de 5 de marzo) y habiéndose solicitado por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 2 de Vitoria-Gasteiz la remisión del expediente administrativo original, de conformidad con lo previsto en el Artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, por la presente se emplaza a todos aquellos que puedan ostentar la condición de interesados en el procedimiento de referencia para que, en el plazo de nueve días, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan en el procedimiento citado en defensa de sus legítimos intereses, si así lo considerasen oportuno.

En Arkaute, a 19 de enero de 2010.

El Director de la Academia de Policía del País Vasco,
JUAN DE DIOS URIARTE ARCINIEGA.